

RAMBLASETIK ARENALERA

Aurtengo abuztuko egun batzuk oso gogorrak izan dira. Egun basatiak eta krudelak eta bortitzak. Niretzat, bai behintzat! Alde batetik, Bartzelonako Ramblas pasealekuan gertatutako triskantza eta sarraski bildurgarria. Eta bestetik, Bilboko Arenalean, jaietako konpartsa batek jarritako txosna ofentsagarria eta mespretxagarria Jesukristoren eta kristauon aurka. Gure sentimendu ederrenak eta sakonenak eta miresgarrienak laidotuta eta irainduta eta zapalduta geratu dira. Ez neban uste holakorik gertatu leitekeanik ere gaurko European. Gitxiago oraindino gure Bizkaia maitearen hiriburuan. Holakorik ez da gertatu inoiz Bilbon. Ez errepublika garaian, ez gerra zibil zitalean ere. Eta, gaur egun, ez neban holakorik espero. Bilbotarrak beti izan dira oso errespetutsuak eta itzal handikoak besteen ideia, iritzi eta ikusmoldeekin. Inon demokraziaren printzipioak maite izan badira, Bilbon izan da. Bihotz zabaleko herria dogu Bilbo. Baina oraingoan bilbotar batzuk euskal kristauon sentimendu barnekoenak eta maitagarrienak birrinduta itzi deuskuez. Bilbotarren eta bizkaitarren izen ona balztzituta laga deuskue. Guzti hori adierazpen-askatasunaren edo “libertad de expresión” deritzon eskubidearen izenean egin ei dabe. Aurpegia behar da gero, gaur egun, Europa baten, hori esateko. Bakoitzaren eskubideak, besteen eskubideen muga amaitzen dira. Edozeinek daki: “Eskubide guztien erabileran, erantzukizun pertsonal eta sozialaren printzipio morala kon-

tuan izan behar da. Gizaki bakoitzak eta giza taldeak, beren eskubideak erabiltzean, besteen eskubideak eta haiekin eta guztien onarekin zer ikusia duten beraien eginbeharrak kontuan hartzera behartzen ditu lege moralak. Justiziaren eta gizatasunaren arabera jokatu behar da guztiekin. Gainerakoan, askatasun osoaren usadioa jarraitu behar da gizartean; horren arabera, ahalik eta askatasunik handiena aitortu behar zaio gizakiari, eta ez zaio murriztu behar, hala behar denean eta behar den neurrian izan ezik” (DH, 7). Zer esango genduke, esaterako, Yihadistak Bartzelonan hil dabezan errukarrien gorpu zatiak eskegita, “Carniceria de Ramblas” deritzon txosna baten salgai jarri izan balebez? Hori ere, “libertad de expresión” edo adierazpen-askatasuna izango ete litzake?

Horixe egin dabe, Jesukristo Jaunagaz. Historiak ezagutu izan dauan pertsonarik santuen eta maitagarrien eta onen eta errubakoenaren aurka. Baita bere jarraitzaileon aurka ere. Eta guk kristauok zer egin daikegu?

Jesukristori jarraitu

Jesukristo Kurutzeratu eta Biztuari begiratu esker onez eta bere Ebanjelioa kontuan hartu eta bizitzen saiatu. Bera baita gure biziaren bizia, gure arnasaren arnasa, gure askatasunaren askatasuna, gure maitasunaren maitasuna, gure bidearen bidea, gure egiaren egia... Zelako argia darion Benedicto XVI. aren pentsamendu eder honi: “Guk sinetsi dugu Jainkoaren maitasunean: honela adieraz dezake kristauak bere bizitzan egin duen oinarrizko hautapena. Ez da kristau izaten hasten erabaki etiko batek edota ideia nagusi batek hartara eraginik, bizitzari aukera berria eta, beraz, behin betiko norabidea ematen dion gertakariarekin, Pertsonarekin, aurkitzean baizik: Jainkoak hain maite izan zuen mundua, non bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinisten duenak betiko bizia izan dezan” (DC 1)

Gure bihotzen muinean grabatuta eroan bere mezu zoragarria. Behin eta barrero hausnartu besteak beste beraren berba hunkigarri honeek: “Aita, parkatu egiezu, ez dakie zer egiten daben eta”. “Maitatu egizuez arerioak, egizue otoitz aurrean zarabiltzanen alde: bere eguzkia on eta gaiztoen gainera eginarazten dauan zeruko zuen Aitarene seme-alaba izan zaitez”. “Maitatu Jaungoikoa bihotz-bihotzez, gogo-gogoz, zure indar guztiz eta maitatu alkar nik maite zaituedan bezala”. “Zoriontsuak bihotz garbiak, Jaungoikoa ikusiko dabe eta”. “Munduak gorroto badeutsue, jakin egizue, zuoi baino lehen izan deustena gorroto niri”. “Zoriontsuak izango zarie zuek nigaitik iraindu eta aurrean erabili zagiezanean eta guzurrez zuen aurka nahi dagiena esan dagienean”. “Ez izan, bildurrik! Zoaze mundu guztira eta egin herri guztiak nire ikasle, ni zuekin izango nozue egunero munduaren azkenera arte”. Blas Pascal jakintsuak hiru pertsonaia aurkezten ditu gizadiaren prototipo bezala: **Alejandro Handia** (boterearen eta diruaren mundua), **Socrates** (etikaren eta jakituriaren mundua), eta **Jesukristo** (fedearen eta maitasunaren eta itxaropenaren mundua). Alejandrok ezin dau ulertu Socrates. Sokratesek, oster, ulertzen dau Alejandro eta ulertzen dau Alejandrok bera ez ulertzea. Alderantziz, Sokratesek ez dau ulertzen Jesukristo. Baina Jesukristok ulertzen ditu bai Alejandro eta bai Sokrates. Eta ulertzen dau gainera Alejandrok eta Sokratesek bera ez ulertzea. Bihotzak (fedea) baditu arrazoiak, adimenak ezin ulertu daikezanak”.

Jesukristo, giza historiaren ardatza

Gizaldiak joan eta gizaldiak etorri, Elizak eten barik autortu eta bizi nahi izan dau Jesukristoren munduan. Jesukristo hartu dau “giza historiaren giltza, ardatza eta helmuga”. Horixe izan da eta izango ere Elizaren eginkizunik ederrena historian zehar. Vatikanoko II.ak, adibidez, gaurko gizakiaren egoerak eta aldaketa sakonak, bai sozialak eta psikologikoak, bai moralak

eta erlijiosoak aztertu ondoren, hauxe inoan ahotsa jasoz mundu guztiaren aurrean: “Elizak sinesten du, Kristok, guztiongatik, hil eta piztuak, gizakiari argia eta indarrak ematen dizkiola bere Espirituaren bidez, bere bokazio gorenari erantzun diezaion; eta ez zaiela gizon-emakumeei beste inoren izenik eman zerupean, salba ditzakeenik. Era berean sinesten du, giza historiaren giltza, ardatza eta helmuga bere Jaun eta Maisuarengan daudela. Horrez gainera hau baieztatzen du Elizak: aldaketa orotan badirela iraun egiten dutenak, aldatzen ez direnak, eta atzo, gaur eta menderen mendetan bat bera den Kristorengan dutela bere azken oinarria. Beraz, Jainko ikusiezinaren irudi, izaki guztietan lehen sortua den Kristoren argitan, Kontzilioak, guztiei hitz egitea nahi du, gizakiaren misterioa argitzeko eta gure garaiko arazo nagusienei konponbidea aurkitzen laguntzeko” (GS 10) Elizaren berbak kontuan hartzekoak ditugu. Bestela gureak egin dau. Berehalaxe, “mundutarrak” bihurtuko gara. Fedea galtzeko pausoak normalean honeek izaten dira. Lehenengoa: Jesukristo bai, Eliza ez sinistea. Bigarrena, Jesukristo ez, Jaungoikoa bai. Hirugarrena, Jaungoikoa ez, gizona bai. Eta azkenean, “homo homini lupus”. Betidanik, tamalez, horixe gertatu izan da. Baita gaur ere. Eta aurrerantzean ere antzera izango dala dirudi. Betiko borroka!

A. Olea